txintxarri

Lasarte-Oria ere, berdintasunaren alde

Emakumeak lanuztearen aurrean; M-8 eguna eta egitarauaren jarraipena / 6-9

TXINTXARRI

Pentsioen defentsan

la 200 pertsona bildu dira asteleheneko protestan, pentsio duinak eskatzeko / 3

Kultura eskaintza oparoa aste honetan: 'Errementari' filma eta 'Madama Butterfly' opera emango dituzte / 5

Amaia Caballero dantzaria nagusi izan da Europako Retro Dantza Txapelketan: lau garaikur irabazi ditu / 10

Gure Elkartea
Santuenean, momentu on bat igarotzeko txokoa

- Jantokia, terraza eta parkea, errepiderik gabe
- Etxeko janaria: razioak, kaxuelitak, pintxoak, pizzak, ogitartekoak...
- Eguneko menua 10€ (kafea barne)
- Ostiraletan, pintxo-potea!
- Erreserbak edo eramateko eskaera egiteko: **686 55 41 45**

Santuenea 10 behea (Usurbil) • 686 55 41 45 • @GureElkarteaSantuenea

Oinez edo txirrindan, kargatu pilak Santuenean!

TXINTXARRI-k ere planto

TXINTXARRI-ko emakumeok bat egin dugu Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8rako egin duen lanuzte deialdiarekin. Aldizkaria egiten dugun langile gehienak emakumeak garenez, orri zuri honen bidez bistarazi nahi dugu itzalpean egiten dugun lana eta kazetaritza bizitza pribatuarekin uztartzeko ditugun zailtasunak. Ez dadila hartu zenbaki honetan utzitako orri zuri kopurua emakumeok proportzionalki egiten dugun lanaren adierazgarri. Bizi dugun prekarietatearen aurrean protesta egiteko modu bat da. Kazetari bezala dugun konpromisoa lehenetsi dugu, eta aste honetako TXINTXARRI-n Lasarte-Oriari buruz informatzen jarraituko dugu betiko moduan, emakumeak albistearen protagonista egiten.

Hasi dira mobilizatzen herriko pentsiodunak

Ia 200 pertsona bildu dira pentsioen aldeko azken elkarretaratzean. Mobilizatzen jarraituko dute; hurrengo larunbatean Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute. "Pobretu egin gaituzte, eta gainera iseka egiten digute"

Txintxarri

Urteak eman dituzte lanean, merezitako erretiroa irabazi ahal izateko. Orain, ordea, arriskuan ikusi dute euren bizimodua, erosmen ahalmena murriztu dietelako etengabe. Bizitza garestiagoa da urtetik urtera, baina pentsioak ez dituzte modu berean eguneratu. Aurten, esaterako, %1,1 igo da KPI, baina pentsioak %0,25 besterik ez. Horrek sortu duen desorekaren aurrean, pentsiodunak ez dira isilik geratu; kaleak hartu dituzte Euskal Herriko toki askotan, pentsio duinak eskatzeko. Lasarte-Oria ez da salbuespena izan. Astelehenetan eguerdiro egiten dute elkarretaratzea. Gero eta gehiago dira, gainera. Ia 200 pertsona bildu dira aste honetan.

Protesta gehiago iragarri dituzte, "politikariek entzun arte". Esaterako, hilaren 17an, larunbatean, Donostiako Pio XII.a plazan elkarretaratzea egingo dute, 11:30ean. Gipuzkoa osotik joango dira pentsiodunak. Gauza ugari bizitakoak dira, eta ez daude prest besoak gurutzatuta geratzeko. Asko familien sostengu ekonomiko nagusia dira, seme-alabek eta bilobek sufritzen duten prekarizazioaren erruz. Haurren zaindari ere badira aiton-amona asko, gazteen kontziliazio arazoak bultzatuta. Azken elkarretaratzera haur-kotxea bultzatzen etorri denik ere izan da.

Astelehenean Okendo plazan egin zuten elkarretaratzea. TXINTXARRI

Antolatzen hasi dira pentsiodunak, eta koordinatzeko talde bat sortu dute. Helburuak argi dituzte: pentsioak bermatzeko, beharrezkoa da sistema aldatzea. Egun kotizazioen kaxatik hartzen da horiek ordaintzeko dirua, baina gizartearen zahartzearen eta krisi ekonomikoaren ondorioz diru sarrerak asko apaldu dira. Horregatik, aurrekontu orokorretan jasota geratzea da proposamen bat. Beste bat, pentsioen eskumena eskualdatzea.

Halere, pentsioen eguneraketa ez da auzi bakarra. Izan ere, azken urteetako politikek haien egunerokoa kaltetu dute. Mendekotasunaren legea aldatu, eta sendagaiengatik birritan ordaindu behar dute. "Pobretu egin nahi gaituzte, eta, gainera, iseka egiten digute", azaldu du Lasarte-Oriako Pentsiodunen Koordinakundeak ohar baten bidez.

Azkena izan dadin benetan

Xabier Rey Urmeneta euskal presoaren heriotza salatzeko kontzentrazioa egin zuten asteazkenean udaletxe parean. *Espetxe politika hiltzailea* lelopean, dozenaka herritar bildu dira, eta dispertsioa amaitzeko eskatu dute. Iruñean jaioa zen Rey, eta Puerto III (Espainian) zuten espetxeratua. Zabaldu dutenez, "ebakiak" zituen besoetan.

TXINTXARRI

Solano eta Eizmendi, bertsotan Buruntzaldeko txapeldun

Lasarte-Oriako Bertso Eskolako 40 bat gazte izan dira Gipuzkoako Eskolarteko Idatzizko Bertsolari Txapelketan

Txintxarri

Lasarte-Orian badago bertsotarako zaletasuna; egun badaude bertsolari prestatuak, baina etorkizunak ere itxura ona du. Hori ikusi da aste honetan Hernanin jokatu den Gipuzkoako Eskolarteko Idatzizko Bertsolari Txapelketan. Herriko Bertso Eskolako 40 bat gaztek parte hartu dute, eta horietako bi gailendu dira Buruntzaldeko lehiaketan: Nora Solano eta Maitane Eizmendi.

Ordubeteko tartea izan dute bertsoak idazteko, eta gero oholtza gainera igo dira kantatzera. Unai Gaztelumendi bertsolariaren eskutik jaso du saria Solanok. Eizmendiri, berriz, Unai Mendizabalek eman dio.

Harrobia zaintzen arduratzen da Bertso Eskolan Ane Labaka. Hark ere jaso du aste honetan sari berezi bat; *Bertsolaritzan garatutako umorea(k), genero ikuspegitik* master bukaerako ikerketagatik Maria Goyri saria eman dio Euskal Herriko Unibertsitateak. Asteazken goizean Gazteizko EHUko Letren Fakultateko areto nagusian jaso zuen aitortza. Unibertsitate publikoak Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako jardueretako bat izan da.

Labakak Gizarte Antropologikoko masterreko azken proiektu bezala garatu du ikerketa. Jone Miren Hernandez herritarra izan du tutore. "Batetik, genero sistemak kulturan erabiltzen den umorea markatzen duela aztertu dut. Bestetik, emakumeek ezarritako sistema horri aurre egiteko, bertsolaritzan umorea erabiltzen dutela", esan du Labakak.

2018ko San Pedro jaietarako kartel lehiaketa martxan da

Udalak San Pedro jaietarako kartel proposamenak aurkezteko epea ireki du. Lanak apirilaren 1era arte aurkeztu ahal dira.

Kartel lehiaketan nahi duen orok parte har dezake, eta nahi beste proposamen aurkeztu daitezke. Proposamenak originalak izan behar dira; ez dute balio beste edozein lehiaketatan sarituak izan direnak.

Lana egiteko teknika librea da, baina kartel guztiek eraman beharko dute idatzia *San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2018*.

Lehiaketan aurkezten diren kartelak udaleko webgunean egongo dira ikusgai. Herritarrek lanen inguruko iritzia eman ahalko dute, eta hori kontuan izango da kartel irabazlea aukeratzeko orduan. Gazteria, Festak eta Kirola Batzordeak izendatuko ditu kartel saritua aukeratzeko epaimahaiko kideak. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du.

Proiekzioek beteko dute Manuel Lekuonako aretoa

Martxoa ekintza kulturalez betea dator. Martxoaren 8a da ardatz nagusia. Baina zinema, antzerkia, musika, dantza, hitzaldiak... denetarik izango da Lasarte-Orian. Erketz Euskal Dantza taldearen 50. urteurreneko ekintzak ere hasiko dira

Txintxari

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak martxoko kultura egitarauko protagonistak dira. Baina badira beste hamaika ekintza kultural eta ospakizun ere. Nabarmentzekoa da Erketz Euskal Dantza Taldearen 50. urteurrena. Dantza taldeak urrezko urtemugako ekintza nagusiei hasiera emango die, martxoaren 17an. *Erketzen Ondarea: 50 urte, ehun jantzi* desfilea antolatu du, eta urte hauetan gutietan erabilitako jantziak erakutsiko ditu.

Zineari dagokionez, Urrezko Globoetan arrakasta handia izan zuen *Tres anuncios* emango dute igande honetan, 19:00etatik aurrera. Oraingoan gaztelaniara itzulia eskainiko da filma.

Bestalde, Okendo Zinema Taldeak euskal zinea sustatzeko duen helburuari jarraikiz, martxoaren 16an *Errementari* beldurrezko filma aurkeztuko du, 22:00etatik aurrera. Zinema taldeko lagunek Paul Urkijo zuzendariaren bisita izango dute. Zuzendari gasteiztarrak filmaren nondik norakoak azalduko ditu, eta herritarren galderak erantzungo ditu. Filma euskaraz eskainiko da, gaztelerako azpidatzizkiekin. Gaztelaniaz ikusi nahi dutenek, berriz, martxoaren 18ko helduen atala zinean izango dute aukera.

Sydneyen grabatutako *Madama Butterfly* opera ikusgarria ikusi ahalko da. HANDA OPERA

Haurrentzako ere

Haurrentzako zinema atalari dagokionez, hilaren 11n *Salvando al Reino de Oz* eskainiko da; martxoaren 18an, *El Señor de los Anillos* animazio filma; eta 25ean, *El Reino de las Ranas: Misión en el Ártico*.

Bestalde, operaz gozatzeko aukera berria izango da Manuel Lekuona kultur etxean, proiekzio digitalak atalaren eskutik. Martxoaren 14an, asteazkena, Pucciniren *Madama Butterfly* ikusiko dute zaletuek. Amodioa eta ohorea oinarri dituen maisu lanak Sydneyko Opera eta portua du atze-oihal.

Antzerkiak ere izango du tarte handia hilabete honetan. Hilaren 23an helduek Hika Antzerki Taldearen *Txarriboda* lana ikusi ahalko dute. Gainera, martxoaren 25a Antzerkiaren Nazioarteko Eguna da. Egun seinalatua ospatzeko, Kukuka Antzerki eta Dantza Taldeak ekintza berezia antolatu du 27 asteartean.

Ardo dastakeketen aurkezpena. LASARTE-ORIAKO UDALA

Upeltegietako ardoa dastatzeko aukera, Aterpearen eskutik

Lasarte-Oriako sei tabernatan ardo dastaketak egingo dituzte martxoaren 12tik 15era bitartean

Txintxarri

Aterpea merkataritza elkarteak eta udalak, *Lasarte-Oria Gastronomikoa 2018* ekimenaren barruan, ardo dastaketa aurkeztu dute.Primeran, Arkupe, Eguzki, Buenetxea, Viña del Mar eta Txartel taberna eta kafetegietan egingo dituzte dastaketak, martxoaren 12tik 15era. Aterpearen 25. urteurreneko egitarauko ekintza ere bada.

Ramon Ormazabal Aterpeako presidenteak nabarmendu du Lsarte-Oria Herri Gastronomikoa marka erabiltzearen arrazoia dela "herria biziago eta erakargarriago egitea".

Aurkezpenean jakitera eman dutenez, ardo dastaketa horietan parte hartzeko izena eman beharko da taberna bakoitzean, plazak mugatuak baitira; hogei pertsona bakoitzeko. Dastaketak 19:00etatik 21:00etara dira.

Ardo dastaketak

- **Martxoak 12:**
Primeran taberna
Olarra Upeltegia
- **Martxoak 13:**
Arkupe taberna
Jaume Serra, Patricinio eta Dinastia Reyes upeltegiak
Eguzki taberna
Ramon Bilbao-Goñi upeltegia
- **Martxoak 14:**
Buenetxea kafetegia taberna
Garcia de Olano upeltegia
- **Martxoak 15:**
Txartel kafetegia
Lagunilla upeltegia
Viña del Mar kafetegia
Gomez de Segura upeltegia

ERREMENTARI FILMA IKUSI NAHI DUZU, LASARTE-ORIAN ETA EUSKARAZ?

TXINTXARRI aldizkariak martxoaren 16ko saiorako **bi sarrera** zozkatuko ditu bere irakurleen artean! Eman izena martxoaren 12a baino lehen *harpidetza@ttakun.eus-en*, Ttakunen bulegoan edo 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita.

txintxarri



Erraustegiaren osasun arriskuak, agerian

Bi zientzialarik txosten bat aurkeztu dute Donostiako Medikuen Elkargoan, eta bere garaian erraustegiari eman zitzaion baimenaren gabeziak azaleratu dituzte. Haien arabera, baimen horrek ez du azpiegituraren inguruko herritarren osasuna bermatzen

Txintxarri

Hitzartu prozesua martxan da, eta hasi dira dagoeneko informazio fasearekin. Hasiera honetan osasunaren gaiari heldu diote, eta adituak ekarri dituzte erraustegiaren arriskuei buruz hitz egiteko. Joan den astean CSIC Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko Fernando Palacios eta Eduardo Rodriguez Farre izan ziren Donostiako Medikuen Elkargoan; Zubietako erraustegiari eman zitzaion baimenak dituen gabeziak bistaratu dituzte txosten batean. Haien arabera, hondakinak erretzeko azpiegiturak ez du inguruko herritarren osasuna bermatzen. Elkargoan aurkeztu dute txostena, baina ibilbide luzeagoa izatea espero dute; GuraSOS elkarteak EAEko Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztuko du.

GuraSOS elkarteak bultzatu du *Hitzartu*, hurrengo urteetarako hondakinen kudeaketa plan bat adosteko helburuz. Parte hartze prozesua hasi aurretik lau ardatz jorratuko dituzte: osasuna, demokrazia, ekonomia eta hondakinen kudeaketaren beste ereduak. Hain zuzen, GuraSOSek eskatuta egin dute txostena Espainiako bi ikerlariek, "inongo ordainsaririk gabe".

CSICko bi zientzialarik aurkeztu dute txostena Medikuen Elkargoan. HITZARTU

Uste dute bere garaian erraustegiaren eman zioten Baimen Integralak badituela hutsune batzuk."Zubietako erraustegiari 2016ko apirilaren 11n emandako oniritziak ez ditu kontuan hartu hondakinen eta lohien errausketaren ondorioz sortzen diren hainbat substantzia kutsatzaile", esan du Joseba Belaustegik, GuraSOS elkarteko kide eta abokatuak.

Palacios ikerlariak argi hitz egin du: "Baimenak araudia urratzen du, ez baita sortuko diren konposatu kaltegarrien zerrenda zorrotza eta osatua egin". Farre epidemiologoak, berriz, nabarmendu du konposatu kaltegarrien emisioei mugak jartzea ez dela nahikoa. "Ez du bermatzen kalteak saihestea".

Lanak Azkorteko bidean eta Hipodromo etorbidean

Lasarte-Oriako Udalak Azkorte bidean eta Hipodromo etorbidean egingo diren lanen berri eman du.

Excavaciones y Transportes Ateri enpresak aurrera eramango ditu Oztaran erreka eta Azkorte bideko isurbidea kanalizatzeko lanak, hark aurkeztu baitu aurrekontu merkeena; 41.246 eurokoa da.

Udalak azaldu duenez, urak hartzen zuen Azkorte bidea euri asko egiten zuen bakoitzean. "Kanalizazioak hautsita zeuden, eta arazoak sortzen ziren handik igarotzeko. Hori dela eta, beharrezkoa izan da obra honi ekitea".

Kanalizazioa berriak, Uraren Euskal Agentziaren oharpenei jarraituz, bisitatzeko moduko sekzioa izango du. Helburua, ondo funtzionatuko duela ziurtatzea eta mantentze-lanak erraztea.

Bestalde, herritarrei jakinarazi diete martxoaren 12tik aurrera Hipodromo etorbidea asfaltatu egingo dutela. Ondorioz, lan horiek egiten diren bitartean errei bakarra egongo da erabilgarri ibilgailuen zirkulaziorako. Honetaz gain, tarte hori asfaltatu eta ondorengo margotze-lana errazte aldera, udalak herritarrei eskatu die ez dezatela autoa utzi seinalatutako guneetan.

TXINTXARRI

Jaki goxoak eta elkartasuna

Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko azken ekintza egin dute Lasarte-Orian; jaki goxoak eta elkartasuna mahai gainean batu dira. Sukaldari sahararrek prestatutako bazkaria dastatu dute Kale Nagusiko Furia Beltzan bildu diren herritarrek: harira, kous-kousa barazkiekin, saharar erara prestatutako arkumea eta postrea. Kafea eta kopak ere edan dituzte, giro ederrean.

Plaza bete emozio eta oroitzapen

Okendo plaza txiki geratu da. Duela astebete pasatxo zendu zen Imanol Jimenez herritarra, 40 urte zituela. Ahaide eta lagunek omenaldi xume baina hunkigarria eskaini diote. "Ez zaitu osorik eraman heriok". Mezu horrekin agurtu dute ahaide eta lagunek Jimenez.

Tolosarra jaiotzez, Lasarte-Oriako herrigintzan sartuta zegoen burubelarri: Zabaleta Auzolan elkarteko lehendakari izandakoa, Oaintxe in deu! txarangako sortzaile eta kideetako bat... Herriari hainbeste eman eta gero, ostiralean jaso zuen bueltan maitasun horren zati bat: plaza bete emozio, anekdota, tristura, malko eta oroitzapen.

Txalapartariek, bertsolariek, Porrotx eta Xumela abesbatzako kideek, Oaintxe in deu! txarangak, ahaide eta lagun gertukoenek, Zabaleta Auzolan elkarteko kideek eta auzotarrek... Denek ekarri zituzten gogora Jimenezekin bizitako momentu on eta goxoak. Musika, dantza, txalaparta doinuak, bertsoak...ez ziren ostiraleko omenaldian falta izan. Emozioak ere ez.

TXINTXARRI

Parekidetasuna, kaleko aldarria

Mugimendu Feministak deitutako lanuzteak eragin handia izan du herrian. Taberna eta dendak itxi dituzte, eta ikastetxeetan eta zerbitzu publikoetan planto egin dute. Okendo plaza jendez bete da, emakumeen eskubideen urraketak salatzeko

Txintxarri

Lehenengo aldia zen gisa horretako greba baten deialdia egiten zela Euskal Herrian. Mugimendu Feministak lau orduko bi lanuzte egitea proposatu du martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean. Eztabaida handia izan da greba egunaren harira, baina zalantzarik ez da arrakasta izan duela; aste osoan ez da beste ezertaz hitz egin. Lasarte-Orian ere izan du eragina deialdiak. Okendo plaza bete da eguerdiko kontzentrazioan. Halere, jende asko falta zen herrian, Donostiara abiatu baitira dozenaka bertako ekintzetan parte hartzera.

Leiho eta erakusleiho askotan ikusi dira amantala urratuak eta zapi moreak. Taberna askok ireki dute, baina gizonezkoak zeuden zerbitatzen. Emakume bakoitzak ahal edo nahi izan duen neurrian egin du greba, baina denen artean aldarrikapena argia izan da: bada garaia benetetako parekidetasuna lortzeko. Etorkizunera begira, denborak bakarrik esango du balio izan duen emakumeen lana bistaratzea modu horretan, lanik ez egiten.

Edonola ere, nabaria egin da greba eguna herrian. Baita ikastetxeetan ere. Landaberri ikastola eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxea martxan izan dira, baina lanuzteak zenbait zerbitzutan eragin du. Esaterako, jangela zerbitzuetan.

Oriarte Bigarren Hezkuntzako Institutuan, irakasleei dagokionez, jarraipena handia izan da, batez ere, Landaberri eraikinean; gutxieneko zerbitzuak izan dira. Gainera, beste ikastetxeetan bezala, gaztek ez dute jangelarik izan.

Andre Joakina Enea haur eskolan gutxieneko zerbitzuak ezarri dira 11:00etatik 15:00etarako lanuztearekin. Izan ere, langile gehienek bat egin dute eta.

Garraioetan ere planto

Tren eta autobus zerbitzuetan hutsune asko egon dira, lanuztea babestu dute-eta langile batzuk. Euskotrenek eta TSSTk gutxieneko zerbitzuak eskaini dituzte.

Esate baterako, Euskotreneko trenak orduro egon dira, egun osoan. TSST autobusari dagokionez, Donostiatik atera diren autobus zerbitzu batzuk bertan behera geratu dira lanuzteko orduetan. Tolosatik edo Andoaindik atera diren autobusetan ere zenbait zerbitzu bertan behera geratu dira.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Osasun Zentroan gutxieneko zerbitzuak egon dira planto orduetan, eta Urbilen Eroskiko langileek bi lanuzte egin dituzte; bata 10:00etatik 11:00etara, eta bestea, 17:00etatik 18:00etara.

Garraioetan ere planto

Goizeko lanuztearen orduan, 11:00etatik 15:00etara bitartean, asko izan dira itxi duten komertzioak eta tabernak. Berriz ere ireki dute gero arratsaldean.

Udal langile askok ere planto egin dute. Batzuk egun osoan. Beste batzuk minutu batzuetako etenalditxoa egin dute, eguerdiko elkarretaratzera joateko. Ondorioz, udal zerbitzuak ez dute normaltasunez funtzionatu lanuzte orduetan. Ezta kultur etxeak ere.

Mugimendu Feministak azaldu duenez, "irudi historikoak" utzi ditu aurtengo martxoaren 8ak. Okendo plazakoa ere izan daiteke horietako bat. Beste urtetakoa baino askoz jendetsuagoa izan da behintzat.

AUTOBUSETAN, IKASTETXEETAN, OSASUN ZENTROAN ETA KOMERTZIOETAN IZAN DIRA LANUZTEAK

1) Martxoaren 8ko lanuztearekin bat egin duzu?

2) Ordainpeko lan orduez kanpo planto egin nahi izatekotan, zailtasunak asko dira.

3) Aurrerapauso batzuk lortu dira parekidetasunaren inguruan, baina gauza asko egiteko daude oraindik. Zer iritzi duzu?

"Beldurra ematen dit gazteen harremanetan ikusten dudan matxismoak; asko kezkatzen nau"

ARANTXA TOQUERO
Atsobakar zaharren egoitzako gizarte langilea

1) Emakume naizenez gero, hor ere sufritzen ditut nire lan orduak, lan kontratuak eta bestelakoak. Ondorioz, nire lan ordutegia ez da ohikoa; egunean bost orduko lanaldia daukat. Urtero martxoaren 8an atera egiten gara, eta lan etenalditxo bat egiten dugu. Ez aurten bakarrik, grebara deitu dutelako. Planto? Ez dut greba egin; egunero egiten dut greba. Ez dut lanaldi osorik. Ez nik bakarrik, Atsobakarreko egoitzan gutxik dute horrelakorik. Gainera, hemen pertsonekin egiten dugu lan, eta ezin dugu etenaldirik egin.

2) Nik adibidez, etxean planto egin dut. Lan ordu murriztua dut, eta horrek arratsaldean ordu asko uzten dizkit. Zer gertatzen da? Ba tokatzen zait etxean gauza asko egitea. Nire senarrak egiten ditu gauzak, baina bera lanean dago, eta beranduago datorrenez, nik hartu behar dut haurren ardura. Bi lanaldi egiten ditut: lanekoa eta etxekoa.

3) 15 urteko alaba eta 10 urteko semea ditut etxean. Gauza asko hobetu dira, baina oraindik askok kezkatzen naute. Beldurra ematen dit zer nolako matxismoa ikusten den gazteen harremanetan. Gure garaian argi genuen zer zegoen gaizki. Orain sexismoa toki guztietatik sartzen da. Normaltzat hartzea izugarria da.

"Denok dakigu teorian zer egin beharko genuke. Orain, praktikara pasa beharko ginateke"

SARA PAVO
Ikaslea

1) Greba egin dut, baina arazoak izan ditut. Kimika ikasten dut, eta nahiz eta EHUn lanuzteak deituak zeuden, laborategiko eskola batera huts egiten banuen zuzenean suspenditu egingo nuen. Azkenean egun osoko greba egin dut; justifikatu egin didate. Orain arte ez da horrelako grebara deitu Kimika Fakultatean. Ikasle Kontseilua deitu dute, eta lortu dute azterketak ez jartzea ostegunean.

2) Etxe bakoitzaren araberakoak dira zailtasunak. Amak erabakitzen badu eskolara ez joatea seme-alaben bila, janaria ez prestatzea… eta etxeko beste partaideek horrekin bat egiten badute, posible du planto egitea. Ingurukoen laguntzarik gabe, inork ez du 3 urteko umea janik eman gabe utziko.

3) Asko dago egiteko. Denok dakigu teorian zer egin beharko genukeen. Orain praktikara pasa beharko ginateke. Erakunde publikoen aldetik, hezkuntzan, soldataren gaian… gauza asko asko daude egiteko. Kimika arloan ikerketa buru gehienak gizonak dira, eta horiek dira gero diru gehien irabazten dutenak. Gaur egun doktoretzara iristen diren asko emakumeak dira, baina nire irakasle gehienak gizonak dira.

"Ongi dago gazteak mugitzea, baina bidea gizonezkoekin batera egin beharko genuke"

KONTXI AMENABAR
Pentsioduna

ki. Lanuzte deialdiarekin bat egin dut, eta ahal izan dudan uzteak egiten saiatu naiz. Beharrezko ikusten dut horrelako egitea, zein egoeratan gauden azaleratzeko eta zer egin un ikusteko. Oso ondo ikusten dut gazteak horrelako mugitzea, baina bidea gizonezkoekin batera ere egin enukeela iruditzen zait.

tasunak izango direla uste dut. Emakumeek greba egin koak lanera joatean, zaintzak nola eramango dira aurrera? itea erabakitzen duten ikastetxeetan, gutxiengo zerbitzuetako n geratuko dira haurrak? Oso zaila ikusten dut, baina noski ela. Erretiroa hartutakoa naizen aldetik, etxeko lanetan irik ez dut izan, nire senarra ondo moldatzen da sukaldean ainerako lanetan ere.

zte garaietatik hona aurrerapausu handiak eman direla ukatu, baina oraindik asko falta dela uste dut. Berdintasunean eziketak oinarria etxean duela uste dut. Nik lau seme-alaba ru mutil eta neska bat, eta txikitatik denek egin dituzte in-berdin. Gaur egun, etxeko lanak, sukaldeko lanak, eta k ere egiten dituzte.

"Iparraldeko herrialdeek beste eredu bat dute. Zergatik ezin dugu guk gurea aldatu"

GARBIÑE MARTIJA
Noaoako sortzailea eta langilea

1) Bai, ez dugu bidaia agentzia iriki. Begi bistakoak diren arrazoiengatik bat egin dugu lanuzte deialdiarekin. Emakumeak garelako noski, eta horrekin batera beste mila arrazoi dauzkagulako. Egunerokotasunean oztopo eta harresi ugari gainditu behar ditu emakumeak. Zer esanik ez, gertatzen diren indarkeria matxista eta bortxaketa kasu guztiak. Denon artean indar gehiago egin dezakegu, elkarri babesa eman behar diogu.

2) Bidaia agentzia ireki genuenetik, oso argi genuen familia kontziliazioa nahi genuela, eta horrela egin dugu gaur arte. Aurretik pausoak eman behar dira. Gogorra da, bagenekien salmentetan eragina izan zezakeela, baina bizi kalitaterako beharrezkoak dira pauso horiek. Iparraldeko herrialdeek bizitzeko beste modu bat daukate. Zergaitik ezingo dugu ba guk gurea aldatu?

3) Etxeko rolak asko aldatu direla uste dut. Gaur egun, gizonezkoek etxeko lanak egiten dituzte, seme-alabak zaintzen dituzte… Zentzu horretan aurrerapauso handia egin dela uste dut, baina oraindik ere lan handia dago egiteko. Oraindik ere ezberdintasun asko dago, eta emakumeok ere egin behar dugu parekidetasunaren bidean gure lana.

"Emakumeak ematen du amore kontziliazioan. Pentsatzeko modua aldatu beharko genuke"

OIANA AIZPURUA
Hezitzailea

1) Ez. Beste greba batera deitu dute hilabete bukaeran, eta niri ere eragiten dit. Besteari baietz esan nion, eta bi greba hilabete bukaeran ezin ditut egin. Kontziliazioaren aldetik, eta baita ekonomikoki ere, ezin diot aurre egin bi grebari. Eta bestea aukeratu nuenez lehenago, hori bakarrik egingo dut. Hezkuntza kontzertatuko greba da, martxoaren 20koa.

2) Bai, zailtasun asko daude. Leku guztietan daude gutxiengo zerbitzuak, baita nire etxean ere. Nire senarra lanean dago ni etxean nagoenean, eta alderantziz. Hau da, bera arduratzen da etxeaz eta umeetaz ni lanean nagoenean, eta alderantziz. Nire senarra lanean badago, etxeko lanei eta haurrak zaintzeari ezin diot planto egin.

3) Aurrerapauso gehiago eman beharko lirateke. Batez ere soldatapeko lanetan, ez ikusten ez direnetan ikusten dut arazoa. Zaintza lanak emakumeen ardura izaten dira normalean. Kontziliazioaren arloan ere, normalean emakumeak ematen du beti amore, eta lanaldia murrizten du. Horrek gero erretiroan eragiten du; etxean geratzen dira eta ez dute kotizatzen. Pentsatzeko modu hori aldatzeko lana egin beharko litzateke.

"Lanuztea egin dugunez, konturatu dira batzuk zenbateko zama eramaten dugun"

HAIZEA ELIZONDO
Irakaslea

rantzitsua iruditzen zait nabarmentzea egunerokotasunean k zenbat gauza egiten ditugun. Egin ez ditugunez, konturatu zenbateko zama eramaten dugun.

uan alaba eta biok gara etxean. Neurri batean lan horiek Saiatu aiz, halere, ahalik eta gutxien egiten. Alabak 8 urte uza asko egin ditzake bere kasa.

ren gaineko desberdintasuna handiegia da. Ni irakaslea ktore publikoan lan egiten dudanez, ez dut sufritu soldataren sberdintasunik. Baina ezagutzen ditut zailtasun horiek tuzten emakumeak. Familia bere kargu dutenak edozer n egiteko prest daude. Iruditzen zait gizonak ez horrenbeste. ona lanera etorri diren emakume asko egunean hamalau aldiak egiten dituzte, eta oso diru gutxirekin bizi dira, ko apurra haien familiei bidaltzeko. Ez zait iruditzen k horretarako hainbeste borondaterik erakusten dutenik. stalde, emakume asko baldintza horietan lan egiteko prest betikotzen direla egoera horiek. Hain zuzen, horiek zaila egitea, agian lanik gabe geratzen direlako. Nire erosotasunean anuztea egitea, dirua galdu besterik ez dut egiten.

"Familian eta hezkuntzan genero indarkeriari aurrera hartzea oso premiazkoa da. Ez dago beste biderik"

ESTITXU ALKORTA
EAJko zinegotzia eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Bultzatzeko Zuzendaria

1) Kargu publikoa naizenez, ardura eta konpromisio gehigarria dut. Lanera joan behar izan dut, nahiz 15 minutuko geldiunea egin. Egun hori ere baliatu behar dugulako gure aldarrikapenak bisualizatzeko.

2) Bai. Eta ama banandua izateagatik, are gehiago. Uste dut etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren rola emakumearena bakarrik izaten jarraitzen duen bitartean arazo hori ez dela inoiz konponduko.

3) Bide luzea dugu benetako parekidetasuna lortzeko. Hobekien ordainduta dagoen lan mota industriala dela kontuan izan behar dugu, eta emakumeraren presentzia sektore horretan, gaur gaurkoz oso urria da. Lanbideen aniztasunarekiko sentsibilizazioa indartu beharko litzateke berezikeria sexistak saihestuz. Bestalde, familiaren esparruan eta hezkuntza arautuaren alorrean ere, genero indarkeriari aurrea hartzea oso premiazkoa dela iruditzen zait. Ez dago gaitz horrekin bukatzeko beste modurik, etxetik eta hezkuntzatik lan kontziente bat egiten ez bada.

"Lanuztea ez da emakume guztientzako onuragarria; uste dut aldaketa heziketatik etorriko dela"

MAITE GARCIA
Administraria

1) Ez dut grebarik egin. Atzoko lanuztea ez da emakume guztientzako onuragarria izan, emakume askorentzat faena bat izan dela uste dut. Greba edo lanuzterik egin nahi ez duten emakumeei egunerokotasuna aurrera eramateko alternatibak bilatu behar izatera bultzatu ditu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde nago, noski, baina lanuztea egitea ez zait bide egokiena iruditzen. Manifestazio deitzea egoki ikusten dut, edozein emakume libreki joan baitateke.

2) Zailtasun ugari ikusi ditut. Ni bi semerekin bizi naiz, nola utziko diot egin behar diren gauza guztiak egiteari? Behartutako egoerak eman direla uste dut.

3) Bai, aurrerapausuak eman dira, baina oraindik asko dago egiteko, eta benetako berdintasuna ez da bat batean lortuko. Denbora bat, lan bat eskatuko du honek, baina benetako aldaketa heziketatik etorriko dela uste dut. Gazteek helduek egiten dutena hartzen dute eredutzat, beraz hortik hasi beharko genukeela uste dut.

Aurrera egiteko, geldialdia

Emakumeen Nazioarteko Eguna, aldarrikapenerako eguna izan da Lasarte-Orian. Hainbat ekintza antolatu ditu udalak aurtengoan ere: hurrengo urterako kartela aukeratzeko lehiaketa, eta emakume ijitoein buruzko hitzaldia, besteak beste

Txintxarri

Mundu mailan, errei-bindikaziorako eguna da martxoaren 8a. Emakumeen Nazioarteko Eguna da, eta emakumeen eskubideak aldarrikatu eta berdintasunezko elkarbizitza bat eskatzeko mobilizazioak ugariak izan dira. Lasarte-Orian ere askotariko ekintzak antolatu ditu, aurten, udalak, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiarekin bat egin dute. Gehiengo sindikalaren babesa jaso du deialdiak.

Astearte arratsaldean, AMUGE Euskadiko emakume ijitoen elkarteko kide Tamara Claveria feminismoaz hitz egin zuen. Ijitoen begiradatik kontatu du aurrera eramaten ari diren lanketa. Bere herriaren ahalduntzearen alde ari da lanea Claveria. Haien hezkuntza hobetzea da helburuetako bat. Horrela, lan munduan sartzeko aukerak zabalduko zaizkiela defendatu du. Horrekin batera, emakumeak eremu publikoen parte izateko borrokan ari dira, eta noski, indarkeria matxistarekin amaitu nahi dute. Emakume ijitoen errealitatea aurkeztu die hizlariak bertaratutako ikusentzuleei.

Kartel lehiaketa

Lasarte-Oriako gazteek martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketan parte hartu dute. Guztira bost lan aurkeztu dira, eta horietatik hiru saritu dituzte. Maren Urkizu lasarteoriatarra izan da garailea, eta 150 euroko diru saria irabazteaz gain, datorren urtean berak egindako kartela erabiliko dute martxoaren 8a iragartzeko. Urkizurekin batera, Ainhoa Iturrizak, Leire Ipiñak , Sandra Rojok, Marta Rojok, Naroa Gonzalezek eta Saioa Ortizek osatutako taldea izan da bigarren saritua, eta Maite Jauregiren lanak hirugarren saria lortu du.

Ostegunean, berriz, lanuzteko deialdiarekin bat eginik, Lasarte-Oriako udal zinegotzi emakumeek lanuzteak egin dituzte. Eguerdian kontzentrazioa egin dute Okendo plazan. Herritar ugari batu dira deialdira, eta udal ordezkariekin batera, hamabost minutuz egin dute kontzentrazioa, eta txalo artean amaitu dute.

Baina Donostian ere deitua zegoen eserialdia eguerdirako, eta 11:15ean,tren geltokian hainbat lasarteoriatar elkartu dira Donostiara joateko. Jende ugari bildu da deialdian.

Arratsaldean ere zenbait ekitaldi egin dituzten, Okendon. 17:00etatik 19:00tara anzterkia, musika eta dantzaren bitartez egin dute aldarrikapena.

Balkoietan amantalak zintzilikatu zituzten deialdiarekin bat egiteko. TXINTXARRI

Tamara Claveriak emakume ijitoen eskubideen alde ari da lanean. TXINTXARRI

Udaleko zazpi zinegotzi emakumeek bat egin dute osteguneko lanuzte deialadiarekin. TXINTXARRI

LAB sindikatuko emakumeek bat egin dute Martxoaren 8ko greba deialdiarekin. LAB

Lasarteoriatar ugari animatu dira bost kilometroko ibilbidea osatzera.. TXINTXARRI

Itzaletik argira, bost kilometrotan

5.000 emakume baino gehiagok hartu dute parte Lilatoiaren 29. edizioan. 97 Lasarteoriatar animatu dira bost kilometroko ibilbidea egitera, Donostiako kaleetan barrena.

'Itzaletik argira' lelopean, milaka emakumek egin dute lasterka Donostian barrena. Marea more horretan murgildu dira lasarteoriatarrak; giro ederrean burutu dute aldarrikapenez jositako bost kilometroko ibilbidea. Hainbatek talde argazkia atera dute gaur goizean, trena hartu aurretik. Denera 5.240 emakumek hartu dute parte; iaz baino 439 korrikalari gehiagok.

Lorea Ayala lasterkari donostiarrak irabazi du lasterketa, ibilbidea hemezortzi minutu eta zazpi segundotan eginda. Marina Gonzalez izan da bigarrena (18:19 segundoko denbora egin du), eta Izaro Rubio hirugarrena (18:24). Herritarrei dagokionez, Maite Salazar hamaikagarren iritsi da helmugara, 20 minutu eta 8 segundo behar izan ditu ibilbidea egiteko.

NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Eskuak

Oheratzeko unea. Edadetutako bikote bat. Komunekoak egiten ari dira: pixa egin, hortzak garbitu... ohikoa. Bukatzeko, batak zein besteak hatzak krema potoan sartu dituzte, eta eskuak igurtzi dituzte. Esku zimurtuek egarria asetu dute. Zenbat lan egingo ote zuten urte hauetan guztietan! Ontziak garbitu, pardelak kendu eta jarri, umeei aurpegiko malkoak lehortu... edo torlojuak estutu, botoiak sakatu, tresnak konpondu... Talko hautsez edo lixibaz zikinduta batzuk, besteak olioz edo tintaz, biek pairatu dituzte lanaren eta adinaren ondorioak. Ondo dakigu norenak diren esku batzuk eta norenak besteak; edo, hobe esanda, esku batzuk norenak diren deskartatu dezakegu.

Esku pare batek egindako lanak, ordea, ez du beste parearen balio bera izan. Gutxietsia izan da, eta ordainpeko lanen bat eginez gero, soldata arrakala eta prekarietatea izan ditu bidelagun. Baina esku horiek lanean jarraitu dute, aurrera segitu dute; gainera, pareko eskuek eraman behar izan ez duten kargarekin, zaintzaren zamarekin.

Atzo esku horiek eta beste milakak lana albo batera utzi, eta kartelak zein pankartak eustera irten ziren kalera. Egun batez, protagonista bihurtu ziren, eta mundu guztiari erakutsi zioten han zeudela, beraiek direla munduaren sustengu, eta sistema honekin bukatzeko garaia heldu dela.

Gaur, ziurrenik, greba aurreko egoerara bueltatuko ziren esku guztiak, baina nago planto egiteak buruetan klik bat egiteko balio izan duela. Gauzak astiro, baina aldatzen ari garen sentsazioa daukat. Urte batzuen buruan, kremaz igurzten diren eskuak norenak diren asmatzen jakin ez dezagun.

11:15ean tren geltokian elkartu ziren lasarteoriatar emakume ugari, trena hartu eta Donostiako mobilizaziora joateko. TXINTXARRI

Kartel lehiaketako irabazleak eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

TXINTXARRI-k ere planto

TXINTXARRI-ko emakumeok bat egin dugu Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8rako egin duen lanuzte deialdiarekin. Aldizkaria egiten dugun langile gehienak emakumeak garenez, orri zuri honen bidez bistarazi nahi dugu itzalpean egiten dugun lana eta kazetaritza bizitza pribatuarekin uztartzeko ditugun zailtasunak. Ez dadila hartu zenbaki honetan utzitako orri zuri kopurua emakumeok proportzionalki egiten dugun lanaren adierazgarri. Bizi dugun prekarietatearen aurrean protesta egiteko modu bat da. Kazetari bezala dugun konpromisoa lehenetsi dugu, eta aste honetako TXINTXARRI-n Lasarte-Oriari buruz informatzen jarraituko dugu betiko moduan, emakumeak albistearen protagonista egiten.

Illarramendi eta Sukunza, Gipuzkoako txapeldunak

Eibarko Esprint Duatloian ekin dio denboraldiari Trinko Lasarte-Oriako Triatloi taldeak. Illarramendik Gipuzkoako Txapelketa irabazi du beteranoetan, eta Sukunzak kadeteetan. Guztira zortzi herritar aritu dira Eibarren, eguraldi onak lagunduta

Txintxarri

Denboraldiko debuta izan du Trinko Lasarte-Oriako Triatloi taldeak Eibarren. Lau taldekidek jokatu dute Gipuzkoako Esprint Duatloi Txapelketa. Trinkokoez gainera, beste hainbat herritarrek ere parte hartu dute, eta, oro har, emaitza onak eskuratu dituzte. Andoni Illarramendik Gipuzkoako txapela jantzi du beteranoen kategorian. Baita Aimar Sukunzak ere, kadete mailan. Zumeatarrak taldean aritzen dira biak, baina Buruntzaldea IKTn entrenatzen dute igeriketa.

Bolada onean da Illarramendi, otsailean Euskadiko Duatloi Txapelketa eskuratu baitzuen Sopelan. 55 minutu baino gutxiago behar izan ditu ibilbidea osatzeko; bost kilometro korrika, hemezortzi bizikletan, eta beste 2,5 korrika egin behar zuten kirolariek. Hogeigarren postuan sartu da Illarramendi, eta hirugarren beteranoetan. Halere, lehenengo gipuzkoar beteranoa izan da. Aimar Sukunzak 1:03 denboran osatu du lasterketa. Gonzalo Sukunza aitarekin batera sartu da helmugan. Basauriko Duatloian ere lehiatu ziren hurrengo egunean, igandean.

Trinko taldeko Asier Gorostegik TXINTXARRI-ri kontatu dionez, "sentsazio onak" izan dituzte taldeko lau triatloilariek. Pozik atera dira laurak, kontutan hartuta denboraldiko lehen lehiaketa zutela. "Eguraldiak lagundu du, nahiz eta bizikletan haizea kontra izan dugun". Distantzia motzak dira esprint modalitatekoak, eta "entrenamendu zehatza" beharrezkoa izaten da. "Arnas motzekoak dira, ez dago astirik ezertarako", dio Gorostegik. Estreinaldia eginda, egutegiko probei begira daude, ezarritako erronkak betetzeko gogoz.

Trinko taldeko triatletak Ebiarren, proba hasi aurretik. TRINKO

Herritarren sailkapena

Eibarko Esprint Duatloia (5-18-2,5 kilometro)

- **Andoni Illarramendi:** 54:39.
- **I. Arteaga:** 58:35.
- **A. Gorostegi:** 1:00:00.
- **I. Ibarburu:** 1:00:24.
- **J. Altuna:** 1:02:55
- **A. Sukunza:** 1:03:49
- **G. Sukunza:** 1:03:50.
- **J. Ormazabal:** 1:06:27.

Buruntzaldea IKTko infantilak, bikain EHko Neguko Txapelketan

Asteburu bikaina izan zuten Buruntzaldea IKTko infantilek Tolosan jokatutako Euskal Herriko Neguko Txapelketan. Lander Sorozabalek, Nerea Santosek, Aintzane Sarobek, Paula Sevillanok eta Ainhoa eta Leire Martin ahizpek maila ederra erakutsi zuten. Guztira 21 domina lortu (11 urre eta 10 zilar) eta 16 marka pertsonal ondu zituzten. Gainera, Espainiako Udarako Txapelketarako gutxienekoa lortu zuten erreleboetako 4x200 metro eta 4x100 metro libre probetan.

Bestalde, igande honetan Nahia Zudaire eta Nathalia Esmeralda Torres taldekideak Igeriketa Egokituko VII. "Elkarrekin" Atzegi sarian arituko dira, Legazpin. Asteburuan badituzte beste hitzordu batzuk Buruntzaldeako igerilariek. Alebinek eta benjaminek liga jardunaldia jokatuko dute Tolosan.

Ostadar Erregional Preferenteak liderra garaitu du etxean

Ostadar Erregional Preferente taldeak sailkapeneko azken postuetatik ateratzeko pauso garrantzitsua eman zuen larunbatean, hiru puntuak lortuz. Ez da nolanahiko garaipena etxean lortutakoa, Deusto Donostia liderraren aurka jokatu baitzuen norgehiagoka.

Ez zen lan erraza izan. Ostadarrek liderraren aurka jokatzeaz gain, azken urteetan talde urdin-beltzean jokatu duten hainbat jokalari ere izan zituen aurrez aurre.

Partida orekatua izan zen; bi taldeek sortu zituzten aukerak. Baina lehen zatiaren amaieran, Unai Iribarrek sartu zuen urdin-beltzen aldeko gola.

Bigarren zatian Deusto Donostia berdinketaren bila atera zen. Ostadarrek izan zuen, ordea, partida erabakitzeko aukera, baina azken minutura arte sufritu behar izan zuen.

Babyauto Zarautzi puntuek ihes egin diote Ourensen

Babyauto Zarautz taldeak bi puntugatik galdu du (40-38) Ourenseko Campus Universitarioren aurka.

Galiziarrak indartsu atera dira zelaira. Babyauto Zarautz taldea, berriz, ez da ongi kokatu. Ondorioz, hiru entsegu egin dituzte etxekoek, eta 19-0 ezarri dute markagailuan.

Zarauztarrek ez dute amore eman, eta aurre egin diote Ourenseri. Aurrelariak ederki ibili dira, eta Ander Rekondok Babyautoren lehen entsegua egin du. Ostean, zigor kolpe eta beste entsegua egin dute; atsedenaldira 19-17 iritsi dira. Bigarren zatia lehenengoa bezala hasi da. Etxekoek eman dute kolpea lehenengo. Babyautoko jokalariek ongi erantzun dute. Baina tamalez, etxekoek bi entsegu eta transformazio bat egin dute. Beltzek azken minutura arte gogor egin dute lan, baina zigor entsegu bat bakarrik lortu dute.

Amaia Gonzalez, nagusi Europako txapelketan

Europako Retro Dantza Txapelketan hiru garaikur ekarri ditu bueltan Lasarte-Oriako dantzariak; tangoan, pasodoblean eta saltsan. Horrez gainera, Espainiako Dantza Konbinatuko txapelduna izan da. Jose Mari Orbegozo izan du dantzako bikotekidea

Adrian Garcia

Ibilbide luzea du dantzan Amaia Gonzalez Caballerok; garaikur asko irabazitakoa da lehiaketetan. Azken honek, ordea, badu zapore berezi bat. "Min hartua nengoen, eta azken unean eman genuen izena. Ez dugu astirik izan entseatzeko". Europako Retro Dantzako txapelketan izan da asteburuan dantzari lasarteoriatarra, Fuengirolan (Malaga, Espainia). Bost kategoriatan aurkeztu da, eta lautan irabazi du, eta bestean bigarren geratu da. Jose Mari Orbegozo da haren dantza bikotekidea.

Amaia Gonzalez eta Jose Mari Orbegozo, garaikur batekin. AMAIA GONZALEZ

Hogei urte daramatzate lehian Gonzalezek eta Orbegozok; urte batzuetako lehortearen ondoren, azken boladan berriro hasi dira irabazten. "Adinaren araberakoak dira kategoriak. Nire dantzako bikotekidea ni baino hamalau urte zaharragoa denez, urte askotan gaztetxoen aurka lehiatu behar izan dugu; oso desorekatua zegoen lehia", azaldu du Gonzalezek.

Halere, txapelketak orain ez daude askoz orekatuagoak. Baina arrazoia beste bat da: Gonzalezek dena irabazten du. Iazko munduko txapelketan sei garaikur ekarri zituzten herrira. Asteburu honetan, lau.

40-50 urte arteko kategorian lehiatu dute, sei modalitatetan. Ondokoetan irabazi dute Europako txapelketa: tangoan, pasodoblean eta salsan. Horrez gain, Dantza Konbinatuko Espainiako Txapelketa ere irabazi dute. Vals, tango eta pasodoble dantzatu behar dute modalitate horretan. Dantza Konbinatuko Europako Txapelketan, berriz, azpitxapeldun geratu dira.

"Oso ondo joan zaigu. Minutu eta erdi dantzatu behar izan dugu; nahiko erraza da guretzat, eskarmentu handia dugu eta". Txapelketa berezia izan da, hasiera batean ikusle moduan joan behar zuen eta. "Eskerrak Maite Irazusta nire fisioterapeutari".

Estilo tradizionala

Retro Dantza modalitatean estilo tradizionalean dantzatzen dute. "Hiru edo lau bikotek batera dantzatzen dugu, baina musika ez dugu ezagutzen. Alegia, tangoan lehiatzen ari bagara, tangoa izango da, noski. Baina abestia zein den ez dakigu". Minutu eta erdi inguruz egin behar dute dantza, baina denbora ere ez da beti berbera. Bikoteak moldatu egin behar du abestiaren luzerara eta erritmora.

Badu beste berezitasun bat txapelketa horrek: "Ez dizute abestia hasieratik jartzen, sartu egin behar zara, eta askoz ere zailagoa da". Hor ikusten da dantzarien trebezia "Dantzari oso onak daude, baina ez daude abestian sartzera ohituak, eta denbora osoan erritmoz kanpo dantzatzen dute. Benetako dantza da hori".

Entseguak eta eskolak ditu ia egunero Gonzalezek, eta ezin dizkio asteburuak eskaini lehiaketei. Halere, txapelketako lorpenak garrantzitsuak dira harentzat, ez bakarrik alor pertsonalean. "Curriculumerako garrantzitsua da. Nire ikasleak harro daude txapelketak irabazten ditudanean".

Halere, Gonzalezek dio Lasarte-Orian ez dagoela dantza lehiaketetan parte hartzeko grinarik. "50 urtez gorako kategoria dago txapelketetan. Nik baditut adin horretako ikasleak, eta primeran egingo lukete. Baina hemen ez dago dantzan lehiatzeko ohitura hori".

Badago, ordea, dantza egiteko zaletasun handia. "Hogei bat urte daramatzat Lasarte-Orian, eta beti izan ditut ikasleak. Boladan dago dantza".

Dantzaren bertuteak ekarri ditu gogora Gonzalezek. Izan ere, ez da ariketa fisiko soila. "Koordinazioa, erritmoaren zentzua, eskolen diziplina... haurrentzako paregabea da". Edonorentzat balio du, eguneko arazoak ahazteko. "Dantza egin bitartean ez duzu beste ezertan pentsatzen".

AZKEN UNERA ARTE EZ DU IZENIK EMAN, MIN HARTUTA IBILI BAITA DANTZARIA ORAIN GUTXI ARTE

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONALEN IGOERA FASEA

Ostadar SKT - Urnieta KE
Larunbata. 17:15. Michelinen.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Oiartzun - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Oiartzunen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Aretxabaleta KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:30. Aretxabaletan.

JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA

Ostadar SKT - Intxurre KKE
Larunbata. 15:30. Michelinen.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Antigua Luberri KE
Igandea. 11:15. Michelinen.

KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA

Ostadar SKT A - Mariño CD A
Igandea. 12:30. Michelinen.

KADETE 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT B - Amara Berri
Igandea. 09:45. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Asador Irigoien - Izen Gabe
Larunbata. 09:30. Kirolgunean.

Avenida Taberna - Viña del Mar
Larunbata. 10:30. Kirolgunean.

Bar Buenetxea - Trumoi Taberna
Larunbata. 11:30. Kirolgunean.

Patricio Bar - Insausti Katagorri
Larunbata. 12:30. Kirolgunean.

3. NAZIONAL MAILA

Eguzki Antonio Aroztegia - Kukuyaga
Larunbata. 17:30. Kiroldegian.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

ISU Leihoak Eguzki - Jaixki AFT
Ostirala. 20:30. Tolosan.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Gorka Margoak Makax - Cecilia Frutadenda Eguzki
Igandea. 09:30. Kiroldegian.

SENIORRAK

Trumoi Taberna Eguzki - Anoeta FT
Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

JUBENILAK

Bar Lasarte Eguzki - Goierri
Igandea. 09:30. Kiroldegian.

KADETEAK

Erain - Balerdi Harategia Eguzki
Larunbata. 10:30. Donostian.

SASKIBALOIA

SENIORRA

Bera Bera Gros - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Donostian.

SENIORRA 3. MAILA

Kurkubi SBK - Ostadar SKT
Ostirala. 20:00. Lezoko Bekoerrota kiroldegian.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Easo Zelaia - Ostadar SKT
Igandea. 12:00. Donostiako Manteo kiroldegian.

JUNIOR PARTIZIPAZIOA

Arri BKL Aldanondo - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. Beasaingo Antzitzar kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Fiskalan ISB
Larunbata. 11:00. Kiroldegian.

KADETE PARTIZIPAZIOA

Zast 2002 ZKE - Ostadar SKT
Igandea. 09:45. Zarautzen.

IGERIKETA

BENJAMINAK

Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko dute.
Larunbata. 15:30. Usabal kiroldegian, Tolosan.

ALEBINAK

Ligako bosgarren jardunaldia jokatuko dute.
Larunbata. 10.00. Usabal kiroldegian, Tolosan.

ELKARREKIN ATZEGI SARIA

Nahia Zudairek eta Nathalia Esmeraldak jokatuko dute.
Igandea. 10.00. Legazpin.

ERRUGBIA

18 URTEZ AZPIKOAK

Ordizia RT - Babyauto Zarautz Beltzak
Larunbata. 13:30. Ordizian.

16 URTEZ AZPIKOAK

Ordizia RT - Babyauto Zarautz Beltzak
Larunbata. 12:00. Ordizian.

14 URTEZ AZPIKOAK

Babyauto Zarautz Beltzak Mutriku - Txingudi RT
Larunbata. 11:00. Zarauzko Asti zelaian.

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOAK

Federazioko jardunaldia.
Larunbata. 10:30. Zarauzko Asti zelaian.

PILOTA

UDABERRI, BINAKA 1. MAILA

Azkoitia 2 - Intza 2
Ostirala. 19:00. Azkoitian.

Behar Zana - Intza 1
Ostirala. 20:00. Billabonan.

HERRI LASTERKETAK

BEASAINGO HERRI LASTERKETA

Beasaingo herri lasterketa jokatuko dute herriko hainbat korrikalarik. Bi ibilbide daude: zazpi eta hamalau kilometrokoa. Monoziklo lasterketa ere egingo dute.
Igandea. 11:00. Beasainen.

ZORION AGURRAK

Josu
Zorionak txapeldun, azkenean iritsi da zure urtebetetzea!! Muxu erraldoiak familiaren partetik.Aita, ama eta Itsaso.

Manolo
Zorionak Manolo, zure familiaren partez, muxu bero bat.

Oier
Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetzean! Bederatzi muxu eta besarkada erraldoi bihotzez , Eñaut aitonamona eta familia guztiaren partetik.

Aner
Zorionak txapelduna!!! Oso ondo pasa zure 4. urtebetzean. Muxu pila bat familiaren partetik

Oier
Zorionak maitia! 11 urte gure bizitza pozten,segi horrela! Asko maite zaitugu! Maddi, Unax, aita eta ama.

Eñaut
ZORIONAK txapeldun!!!!! 14 urte!!!! Gurasoak, Eneritz, Laia, aitonak eta familiaren partetik.

Iñaki
Zorionak, bihotza. Muxu asko zure lehen urtebetetzean. Zure gurasoak, amona, osaba-izebak eta lehengusuen partetik.

Eneritz
Zorionak bihotza. 11. urtebetetzea ospatu merezi duzun bezala. Jarraitu orain bezain jator eta zoriontsua izaten. Asko maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet
Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

SUDOKUA

		9				6		8
6			9	4	5		3	
		1		7		5		
8	7		4				2	
	3		1	2				5
	1			8	9			
				6	2	4		
	8	3						6
5			3			9		

GUTUNAK

Zabaletan artaxuriketan

HERRITAR XUME BAT

Badira hainbat mende auzolana abian jarri zenetik.Geroztik gure arbasoetatik jasotako lankidetza sistema horrek izan du bilakaera anitz. Baserrietan hasi, herri edo auzoetan jarraitu eta egungo *crowdfounding* edo *crowdsourcing*-eraino.

Auzolanaren ezaugarria, besteak beste, herri edo auzoaren mesedetan egindako lana da, baina nik beste bat azpimarratu nahi nuke: antolakuntza.

Antolatzeko gaitasuna da, hain zuzen ere, herri honek hainbestetan erakutsi diguna, baina nabarmendu nahi nuke Zabaleta auzoak aurreko ostiralean egindakoa. Izan ere, begibistakoa da, astebete eskasean, zendu berri den Imanolen omenez antolatutako hain ekintza ederra hain modu polit eta azkarrean aurrera ateratzeko borondate eta kemen nahikoak badituzuela.

Liluragarria da herriko hainbat elkartetako kideak (haur, gazte, heldu) omenaldian parte har zezaten egin zenuten lana eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Harrigarria, txundigarria, miresgarria, (hitzak motz geratzen dira),txapela kentzeko modukoa da musutruk egiten duzuen auzolana.

Ederki asko jarri zenioten izena auzoari: Zabaleta Auzolan.

Jarraitu horrela. Gora zuek!

OHARRAK

Zesta punta hastapenak

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak zesta puntan hasteko saio berezia antolatu du martxoaren 17an, arratsaldeko 16:00etan, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

2006 urtetik 2009 urtera jaiotako neska-mutilei zuzendutako saioa izango da.

Interesa duten pertsonek martxoak 5a astelehenetik aurrera, Maialen Chourraut kiroldegian eman behar dute izena. Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, plaza kopurua mugatua da eta izen-emate zerrenda errespetatuko da.

Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

Faltzes eta Milagrora txangoa

Biyak Bat elkarteak Faltzes eta Milagroko El Montecillo lursailera irteera antolatu du martxoaren 22an.

Goizeko 8:00etan aterako dira Lasarte-Oriatik eta Flatzeseko Zahori hipika ezagutuko dute. Milagroko El Montecillo lursailean bazkaldu eta ostean, dantzaldia eta bingoa izango dute.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek berriz, 45 euro.

Izena ematea martxoaren 7an irekiko da. Inskripzioa elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Hiru logelako pisua alokatzen da, sukalde eta komonarekin. Zabaleta auzoan. Telefonoa: 628 904 130.

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan.659 021 945.

LANA

ESKAERA

Interna moduan lan egingo nuke, baita gauez eta asteburuetan ere. Ospitaletako zaintzak ere egingo nituzke. Telefonoa: 627 206 110.

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen esperientzia duen pertsona bat naiz, interna gisa lan egiteko prest. Gomendio onak baditut, Lasarten bertan lan egiteagatik. 631 201 882.

Umeak zaindu edota klase partikularrak emateko prest. Magisteritza ikasia, esperientzia umeekin eta euskalduna. 658 727 669.

Interno gisa lan edo orduka egingo nuke lan. 617 853 042.

BESTELAKOA

SALMENTA

Harry Styles kontzertuaren bi sarrera saltzen ditut, erosi ditudan prezio berberean. Martxoaren 31n da kontzertua, Madrilen. Telefonoa: 696 85 19 05.

JAIOTAKOAK

Sara Antolin Catalan. Martxoaren 1an.
Garazi Navarro Jimenez. Otsailaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 9	GIL
Larunbata, 10	GANDARIAS-URIBE
Igandea, 11	GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 12	ACHA-ORBEA
Asteartea, 13	URBISTONDO
Asteazkena, 14	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 15	ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

HILDAKOAK

Antonia Paredes Cifuentes. Martxoaren 7an.
Macario Iglesias Santos. Martxoaren 6an.
Isabel Sanchez Cobo. Martxoaren 4an.
Liria Gurruchaga Astigarraga. Martxoaren 3an.
Felipe Martin Sanchez. Martxoaren 3an.
Julian Ruiz Vielba. Martxoaren 3an.
Maite Gomez Herrero. Martxoaren 2an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Ioar Gainza, Amets Agirre, Ander Huegun, Maialen Goikoetxea.

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 9

LASARTE-ORIA Ihes gela
Gazteek ihes egiteko gelan parte hartzeko aukera izango dute. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Gaztelekua, 18:00etan

LASARTE-ORIA Antzerkia
¡Uff qué familia! antzezlana ikusteko aukera izango dute helduek. Sarrera, 3 euro. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Manuel Lekuona, 19:30ean

ASTIGARRAGA Hitzaldia
Euskal Mitologia eta kultura matrilineala hitzaldia eskainiko da. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Kultur etxea, 17:00etan

ASTIGARRAGA Zine-foruma
Bertha Gaztelumendiren *Volar* filma ikusi eta solasaldia izango da. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Kultur etxea, 18:30ean

ANDOAIN Tailerra
Autodefentsa tailer irekia eskainiko da. M8 eguneko egitarauko ekintza.
Gazte lokala, 17:15ean

ANDOAIN Antzerkia
Ttanttaka antzerki taldeak *Giltzadun etxea* lana eskainiko du. Sarrera: 12 euro. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Bastero kulturgunea, 21:30ean

LARUNBATA 10

LASARTE-ORIA Zumba maratoia
III. zunba maratoia egingo da. Euria egingo balu, Villa Mirentxu ondoan dagoen Trinketean egingo da. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Okendo plaza, 11:00etan

IGANDEA 11

LASARTE-ORIA Herritarren bulegoa
Lasarte-Oriako alkatea eta hainbat batzordeburu herritarren proposamenak eta kexak jasoko dituzte Herritarren Bulego Ibiltarian.
Okendo plaza, 17:00ean

LASARTE-ORIA Kontzertua
Primaveras hirukoteak Atsobakar zahar etxeko egoiliar eta haien familiei kontzertua eskainiko die.
Atsobakar zaharren egoitza, 11:00etan

LASARTE-ORIA M8 egitaraua. Emakume langilearen eguna igaro bada ere, Lasarte-Oriako Udalak antolatutako egitaraua ez da amaitu oraindik. Adin guztietarako ekintza izango dira, gainera: gazteentzako ihes gela, helduentzako antzerkia, zumba maratoia, erretirodunei zuzendutako bideo-foruma eta haurrentzako ipuin kontalaria.
Lasarte-Oria, astean zehar

ASTELEHENA 12

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Olarra upeldegiko ardoen dastaketa egingo da. Izena eman behar da.
Primeran taberna, 19:00etatik aurrera

ASTEARTEA 13

LASARTE-ORIA Bideo-foruma
Biyak Bat elkarteko kideek bideo foruma egingo dute. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Biyak Bat Jubilatuen Elkartea, 18:00etan

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Nola egin kurrikuluma gazteentzako hitzaldia eskainiko da.
Gaztelekua, 19:00etan

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Jaume Serra, Patricinio eta Dinastia Reyes upeltegietako ardoen dastaketa egingo da. Izena eman behar da.
Arkupe taberna, 19:00etatik aurrera

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Ramon Bilbao upeltegiko ardoen dastaketa egingo da. Izena eman behar da.
Eguzki taberna, 19:00etatik aurrera

ASTEAZKENA 14

LASARTE-ORIA Proiekzioa
Proiekzio digitalak atalean, *Madama Butterfly* opera eskainiko da. Jatorrizko bertsioan eskainiko da, gaztelaniazko azpitituluekin. Sarrera, 7,50 aurretik erosita; egunean, 9 euro.
Manuel Lekuona, 19:00etan

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Garcia de Olano upeldegiko ardoen dastaketa egingo da. Izena eman behar da.
Buenetxea taberna, 19:00etatik aurrera

OSTEGUNA 15

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa
5 urtetik gorako haurrentzako ipuin kontaketa saioa egingo da. Itziar Saenz de Ojer arituko da ipuin kontalari lanetan. Emakume Langilearen eguneko egitarauko ekintza.
Manuel Lekuona, 18:00etan

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Lagunilla upeltegiko ardoen dastaketa egingo da. Izena eman behar da.
Txartel kafetegia, 19:00etatik aurrera

LASARTE-ORIA Ardo dastaketa
Gomez de Segura upeldegiko ardoen dastaketa. Izena eman behar da.
Viña del Mar kafetegia, 19:00etatik aurrera

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Salvando al reino de Oz
Igandea: 17:00.

Tres anuncios en las afueras
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Un pliegue en el tiempo
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 00:50.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 00:50.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40.

Winchester: La casa que construyeron los espíritus
Ostirala: 16:05, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.
Larunbata: 20:30, 22:40, 01:00.
Igandea: 20:30, 22:40.

Loving Pablo
Ostirala: 16:20, 19:00, 21:35, 00:35.
Larunbata: 16:20, 19:00, 21:35, 00:35.
Igandea: 16:20, 19:00, 21:35.

Gorrion Rojo
Ostirala: 16:15, 19:05, 21:55, 00:10.
Larunbata: 16:15, 19:05, 21:55, 00:10.
Igandea:16:15, 19:05, 21:55.

Sin Rodeos
Ostirala: 15:55, 18:10, 20:05, 22:00, 00:00.
Larunbata: 15:55, 18:10, 20:05, 22:00, 00:00.
Igandea: 15:55, 18:10, 20:05, 22:00.

Black Panther
Ostirala: 15:55, 18:45, 21:35, 00:25.
Larunbata: 15:55, 18:45, 21:35, 00:25.
Igandea: 15:55, 18:45, 21:35.

El hijo de Bigfoot
Larunbata: 16:15, 18:20.
Igandea: 16:15, 18:20.

Cincuenta sombras liberadas
Ostirala: 20:15, 22:25, 00:45.
Larunbata: 20:15, 22:25, 00:45.
Igandea: 20:15, 22:25.

Errementari
Ostirala: 18:15 (euskaraz).
Larunbata: 18:15 (euskaraz).
Igandea: 18:15 (euskaraz).

La forma del agua
Ostirala: 16:30, 19:15, 22:00, 00:30.
Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00, 00:30.
Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

Cavernicola
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

Lady Bird
Ostirala: 16:15.

LABURPENA

Salvando al reino de Oz
Zuzendaria: Vladimir Toropchin. **Gidoilariak:** Aleksandr Boyarskiy, Darina Shmidt. **Herr.:** Errusia (2017). **Ekoiztetxea:** Melnitsa Animation Studio. **Iraupena:** 82 minutu.

Oz mundu magikoko istorio eraldatua

Salvando el reino de Oz filman etxeko txikiek ez dute ohiko istorioa ikusiko. Filma Aleksandr Volkov errusiarrak 1963an idatzitako *Urfin Jus eta bere egurrezko soldaduak* liburuan oinarritua dago. *Magic Land* sagako bigarren liburua da hori. Aleksandr Volkovek L.Frank Baumen liburua itzuli eta moldaketa batzuk egin zizkion. Geroztik, Ozeko mundu magikoa oinarri hartuta beste hamaika istorio idatzi zituen. *Salvando el reino de Oz* filmeko egileek istorio horiek ezagutzera eman nahi izan dituzte.

Urfin maltxurra Ozera iristen da lur magiko hori menderatu nahian. Bere ametsa Hiri Esmeraldako errege bilakatu eta honi izena aldatzea da, Urfinville. Horretarako berak sortutako egurrezko soldaduak erabiliko ditu.

Bere plana aurrera doa, baina Dorothy neskatxa gaztea eta Toto bere txakurra agertzean dena pikutara doa.

Dorothyk bere etxera bueltatu nahi du. Zapata magikoak dituen neskatxak burmuinik gabeko txorimaloa, bihotzik gabeko latoizko gizona eta leoi koldarra aurkituko ditu bidean. Guztiek bat egingo dute Urfin garaitzeko.

Baina ez da hain erraza izango, Urfin garaitzeko lehenengo beraien benetazko izaera ezagutu beharko dute lagunek.

KOMIKIA

PUBLIZITATEA